

IÑIGO LOIOLA'KOA JERUSALENTA

Iñigo'k berak edesten deusku:

"1523-ko urte a etan Jerusalemenera joateko erromes asko etorri'ziran; baiña geienak euren lurraldera itzuli ziran turkiarrak kristiñauai Rodas ugarteak kendu barri eutseelako".

"Baiña nik neuretzako esaten neban: ontzi bakar bat Jerusalem'era joaten bada be, gure Jaunak ni an eroango nau".

"Amairu lagun joan ziran gure aurretik urten zan erromes-ontzian, eta zortzi edo bederatzi bakarrik gertatzen giñan Txipre'ko gobernaria en ontzirako".

Iñigo sartu zan ontziak "La Negrona" zuan izena. Itsasontzi andi eta ederra zan: 19 kañoi zituan eta 52 tostarteko edo ontzi-mutil. Erromes bakotxak 26 dukat emon bear zituan joan-etorria egiteko, baiña Iñigo'ri, Benezia'ko Agintariari eskerrak, dana parkatu eutsoen.

Loiolatarra baiño urte gutxi lenago joan zan erromes batek esaten deusku; Jerusalem'era joan gura dauan erromesak iru zorro ondo beteak eroan bear dituela: lenengo zorroa diruz betea, bideko gastuai erantzuteko; bigarrena neurribako pazientzizko zorroa turkiarrak kristiñauai egiten eutseezan tratu txarrak onez eroateko; irugarren zorroa fedez betea, bideko neke guztiak Jaungoikoagatik gainduteko... Iñigo'k bigarren eta irugarren zorroak ondo beteta eukazan, baiña lenengoa erabat utsik. Jaungoikoak zelan edo alan beteko eutsalakoan pozik joian.

"Baiña ontzia itsasoratzekean sukar gatx andi bat etorri jatan, eta egun batzuetan osasunez txarto egon

ondoren, sukarrak alde egin eustan. Eta ontziak itsasora urten bear eban egunean, ain zuzen, nik purga bat artu neban. Eta nire lagunak osagillari, ea Jerusalem'era joan nintekean itandu eutsoen, eta onek esan eban, ontziratzekotan ontzian sartu nintekeela baiña Jerusalem'en obiratua izateko".

"Baiña alan be ni ontziratu nintzan, eta egun aretan bertan ontzia urten zan. Eta agotik ainbeste bota neban, oso arinduta, eta guztiz sendatuta aurkitu nintzan".

"Ontzi onetan danen aurrean zikinkeria eta gordinkeria asko egiten ziran, eta nik gogor artzen nituan. Ontzian bertan nigaz zetozan españiar batzuk olakorik ez egiteko esaten eusten, ontzikoak ni ugarteren batean bakarrik izteko asmotan ebizela-eta, baina Jaungoiko lagun Txipre'ra laster eldu giñan".

"An gure ontzia itzi, eta oiñez andik amar lekuatara -55 kilometro— egoan "Las Salinas" izeneko beste kaira joan giñan, eta an erromes ontzian sartu giñan. Eta emen be, beste ontzian egin neban lez, ez neban jateko Jaungoikoagan neukan itxaropena baiño beste gauzarik sartu".

"Garai onetan gure Jauna askotan agertzen jatan, eta onek poz eta indar andia emoten eustan. Gauza borobil eta andi bat, urrezkoaren antzeko bat ikusten nebala iruditen jatan, eta au Txipre'tik urten eta Lur Santuko Jafa'raino agertu jatan".

GOIKOETXEA'tar IÑAKI

